

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko apirilak 27 · 1138. zenbakia

## HAURRAK LEHENENGO

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34  
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com

# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

**BALATZ**

Instalakuntzak eta konponketak  
antena

Bidebarrieta, 37 Tfnoa: 943 20 05 08  
balatz@euskatel.net Fax: 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**

Ego Gain, 9 cc 677 51 24 62  
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45  
943 20 06 97

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAN  
24 orduko  
urgentzia

610 532 922

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobear  
goza dezozun

Azitoin Industrialdea, 3 - H Pabilioia  
Tfnoa: 943-120108  
www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

olaiz etxeberría martinez ARKITEKTOA  
olaiz@arquitectura-el.com Tel. 649978332

estudio etxeberría

arkitektura, ingeniari eta peizaioak  
solain eta abarretako ludekako teknikoa

Makala, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-el.com



## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** ENERGIAREN  
BERRIZTAGARRIA  
E.I.T.  
Energia Berriztagarria  
S.L. 943 20 18 20  
AIZ Berriztagarria S.L.  
Barrena, 6 - behea esk.

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com  
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaino.com

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA  
EIBARRER, Orleku 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**  
PROIEKTUAK - ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
Rosario, 15 - ELGORRAR-  
605 713 168 943 744 019

www.kolorlan.com 667 54 89 16



## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**  
Superficie  
mota guztiak  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa: 943 031 082  
Móvil: 688 609 171  
www.multiservicioeibar.com Aragoita, 18-2-D



## Itxuraberrituta eta ilusioz beteta gatoz bueltan

Honezkerok konturatuko zineten moduan, azken asteotan ez dugu astekaria papelean kaleratu, COVID-19aren pandemiari aurre egiten laguntzeko horrela erabaki eta gero. Izan ere, lehen egunetik Osasun arlotik behin eta berriz bidali diguten mezua argia da: funtsezkoa da COVID-19 birusa gizartean ahalik eta gutxien hedatzea eta, horretarako, etxean gelditzea da neurririk egokiena. Hori jakinda, eta astekaria zuen etxeetara ailegatzea posible egiten dugun langile guztion osasuna zein gainontzeko herritarrena babesteko, eta osasun sistema kolapsatu ez dadin laguntzeko, ...eta kitto! aldizkaria papelean ez kaleratzea erabaki genuen.

Hala ere, ez gara geldirik egun eta egunero jarraitu dugu informazioa, teknologia berriek horretarako ematen diguten aukera baliatuz: [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) web orrian albiste berriak sortzen joan ahala horien berri ematen dihardugu, baita gure sare sozialen bitartez ere. Ineoro argitaratzen ditugun albisteez gain, bestalde, astero sortzen joan den informazio garrantzitsua PDF batean biltzen joan gara, nahi izanez gero dokumentua jaitsi, inprimatu, gorde eta irakurtzeko aukera izan dezazuen. Aldizkariaren 1.135 (martxoaren 27koa), 1.136 (apirilaren 3koa) eta 1.137 (apirilaren 17koa) zenbakiak "etakitto.eus/mediateka/eta-kitto-astekariaren-aleak" helbidean aurkituko dituzue, astekariaren gainontzeko ale guztiak batera. Azken asteotan sekula baino lan handiagoa egiten dihardugu, ahalik eta informazio zehatzena zuei emateko eta, horrekin batera, koarentena arintzeko etenbarik aritu gara webgunea eduki berriekin elikatzen eta asko gehitzen joan gara, asmo horrekin sortu dugun #etxeanEtaKitto azpiatalean.

Gaur buzoietan jaso duzuen astekaria, bestalde, itxuraberrituta datorrela konturatuko zineten. Egoerak derrigortuta egin dugun etenaldian diseinua aldatu diogu astekariari, kalera buelta ilusioz betetzeko. Aldaketa zuen gustokoa izatea espero dugu eta gure ilusio horrekin zuek ere kutsatzea nahiko genuke. Eutsi goiari, denok elkarrekin laster egoerari buelta ematea lortuko dugu eta!

Erredakzioa

"Hemengo jendartea ez da batere aldatzen. Gizon eta emakumeen artean banatu beharko ziren etxeko lanak, baina emakume horiei pasatzen zaizkie eta horrela hemengo klase soziala eta patriarkatua ez dira batere mugitzen. Gizonek etxeko eta zaintza lanetatik eskapatzen segitzen dute, kanpoko beste emakume horiei ardura pasatuz. Eta etorkinen jatorrizko jendarteen ere ez da aldaketarik ematen. Hurbilenekoei bidalitako diruarekin etxe bat erosi, seme alaben ikasketak ordaindu edo hona ekartzen dituzte, baina sisteman ez da ezer aldatzen. Hemendik bidalitako sosarekin, nolabait, herrialdea mantentzen da, baina pertsona indartsuenez hustu egiten da aldi berean eta, modu honetara, kolonizazioa betikotu egiten da".

TXURI OLLO, antropologoa

"Ni bakarrik nagoenean inoiz ez naiz aspertzen. Jendearekin nagoenean aspertzen naiz, hau da, jende gogaikarriarekin topo egiten dudanean. Eta mundu honetan gehien aspertzen nauden agurrarena izaten da, beste batzuekin egon eta gero joaten hasten zarenetik benetan joaten zaren arte pasatzen den denbora guzti horretakoa. Hor ordu laurdena egiten dugu, ez nago baino banago egoeran. Munduko gauzarik aspergarriena da! Nahiko barnerakoa ere banaiz, edo misantropoa, eta nire izaerarekin bat datozen pentsalarien bila ibili izan naiz. Epicurok `ezkutatu zure bizitza´ zioen eta beti gustatu izan zaizkit nor bere burua aski izate horrekin jardun dutenak, besteen menpe egon barik. Gogokoen izan dudana Montaigne ere nahiko gazte aldendu zen gizartetik".

IÑAKI URIARTE, idazlea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MU!** → Ganaduaren orruaren onomatopeia. "Mu! ziñuan behixak txala kendu zetsenian".  
**MUGA-SAGU** → Soroetako arratoia. Erderazko 'musaraña'. "Muga-saguak garimetan eban abixia, ogirik falta izan ez zeixan bere famelixiak".



**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
605 711 422

**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
[erredakzioa@etakitto.eus](mailto:erredakzioa@etakitto.eus)  
[komunikabideak@etakitto.eus](mailto:komunikabideak@etakitto.eus)  
[publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus)

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)  
[normalizazioa@etakitto.eus](mailto:normalizazioa@etakitto.eus)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA**  
Maku Oruezabal

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
Ihntza Fernandez

**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.450 ale


**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





## DBH eta Batxilergoko ikasleak klasera itzultzea aurreikusten da

>>> Hezkuntza Saileko arduradunek eguaztenezan aurkeztu zuten ikasturte amaierarako Hezkuntza Plana. Azaldu zutenez, aurrez aurreko jarduera eten aurretik ikasleek lortutako maila funtsezko oinarri gisa erabili beharko da, ikasturte amaieran kalifikazioari buruzko erabakiak hartzeko. Hezkuntza Sailak, osasun-irizpideek horretarako aukerarik ematen badute, DBHko 4. mailako ikasleak, Batxilergoko bi mailetakoa eta Lanbide Heziketako lehen mailetan daudenak jarduera presentzialera itzultzea aurreikusten du.

Euskal Autonomia Erki-degoko ikastetxe guztietara dagoeneko bidali den dokumentuak honako hauek jasotzen ditu: irakasle-taldeak koordinatzeko orientabideak eta jarraibideak, metodologiak, curriculum-egokitza-penak, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten

ikasleei eman beharreko erantzuna edo ebaluazio irizpideak, besteak beste. Azken elementu horri dagokionez, hau da, ebaluazioari dagokionez, nahitaezkoa da ikasturte amaierara arte aurrez aurreko edo urrutiko irakaskuntza-jarduera ahalik eta gehien aprobetxatzeko estrategiak planifikatzea, eta ebaluazio-prozedurak ezartzea ikasleen oinarriko gaitasunen garapen-maila zehazteko, aipaturiko maila horiek ziurtatzeko helburuz.

Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritako ikastetxeen autonomia pedagogikoarekin bat etorritik, ikastetxe bakoitzari dagokio prestakuntza-helburu horiek zehaztea bere curriculum-proiektuetan eta gelako programazioetan. Ikastetxe bakoitzean, dagokion irakasle-taldeak edo departamentuak lehentasuna emango die ikaskuntza-helburuei, edota egokitu egingo ditu.



## Baliabide urriko familientzat laguntza online ikasteko

>>> SD Eibar Fundazioak baliabide urriko familiak Informazio eta Komunikazio tresnekin hornitzeko hitzarmena sinatu du Gurutze Gorriarekin, familietako seme-alabek online eskolak jarraitu ahal izateko. Horrela, modemak eta tabletak banatuko ditu herriko 59 familiatan. Udalak, herriko ikastetxeekin elkarlanean, baliabiderik gabeko familiak identifikatu ditu eta

Eibarrek, Euskaltelen laguntzarekin, arazoari irtenbidea eman nahi izan dio.

Gurutze Gorriak egunotan jasoko du materiala eta familiek bi hilabeteko epean erabili ahal izango dituzte tresnak eta interneterako konexioak.

Horrez gain, horietako hamarrek tabletak jasoko dituzte, ez baitituzte tresna egokiak ikasketak behar den moduan jarraitzeko..

## Udaltzainek 40 zigor ezarri dituzte azken egunotan

>>> Eibarko Udalak eman dituen azken datuen arabera, apirilaren 14tik 21era Udaltzaingoak 40 zigor ezarri eta 1.129 lagun eta 576 automobil identifikatu ditu, etxean egoteko agindua ez betetzeagatik. Bestetik, alarma egoera ezarri zutenetik, 5.422 lagun eta 1.845 automobil identifikatu eta 178 lagun zigortu ditu guztira.





## Langileak babesteko material hornitzaile bila

>>> Debegesa garapen agentziak Norbera Babesteko Ekipoak (EPIak) egiten ari diren eskualdeko hornitzaileei kontaktuan ipintzeko dei egin nahi die, "Debegesako web orrialdean argitaratuko den direktorio bat sortzeko". Edozein motatako EPIak (maskarak, hidrogelak, manparak, seinaleak...) egiten dituzten hornitzaile bila ari dira. Ekimenarekin, lanera bueltatzeko prestatzen ari diren sektore guztietako enpresei (industria, merkataritza, turismoa, eraikuntza...) langileen babeserako segurtasun neurriak betetzen dituen materiala lortzen lagundu nahi dute. Materiala duen hornitzailea izanez gero, hauek dira Debegesarekin kontaktuan ipintzeko bideak: debegesa.eus helbidean dagoen formularioa beteta, pymes@debegesa.eus helbidera idatzita edo 680 83 79 01 zenbakira deitu edo WhatsAppa bidalita.

## Ondasun Higiezin zerga atzeratuta

>>> Udalak Ondasun Higiezin gainerako zerga borondatez ordaintzeko epea aldatzea erabaki du, osasun-larrialdiaren ondorioz. Ordainketak abuztuaren 1etik irailaren 15era egin ahal izango dira Kutxa-bank, Laboral Kutxa, Banco

Sabadell-Guipuzcoano, BBVA, Banco Santander, Bankoa, Caja Rural de Navarran eta La Caixan, edo Interneten, NIREORDAINKETA bidez. Ordainketa zatikatua egiteko eskaera irailaren 4ra arte eskatu ahal izango da.

## Udaltzainen dantzak gogor kritikatu dituzte

>>> Eibarko Udaltzainek musikarekin girotu ohi dituzte egunero herriko kaleak eta, pauso bat gehiago emanez, kalean dantza egin zuten orain dela bi asteburu. Bizilagunek Udaltzainen dantzak grabatu

eta sare sozialetan partekatu zituzten, eta bertan ikusten dena gogor kritikatu du Euskadiko Udaltzainen Buruen Elkarteak (EUBE), horrelako ekintzak "tokiz kanpo" daudela esanez.



## Udal etxebizitzaren errentaren %50eko murrizketa ezarri du Udalak

>>> Udalak hainbat neurri hartu ditu udal etxebizitzaren errentaren inguruan. "Kaltetutako kolektibo askok daukate etxea errentan eta, une honetan bizi dugun osasun-krisia dela eta, ezin diete aurre egin errenta ordaintzeko gastuei", adierazi dute. Horren aurrean bi neurri hartu ditu. Batetik, errentaren %50eko murrizketa, alarma egoerak irauten duen bitartean eta hurrengo bi hilabeteetan. Eta bestetik, errentaren gainerako zatia ordaintzeko atzerapena.

ETXEKO TRESNAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK

**BENICOBA**

Juan Gisasola, 12-14 606 83 83 61  
electrodomesticosbenicoba@gmail.com

Behar duzuenarako  
gaituzue orain ere

GERTUTASUNA eta KONFIDANTZA

#Eibarrenbadakagu #nikEibarrengastaukot

AURRERA!

## TUTULUMENDI

## INBIDIXIA KORONABIRUS SASOIAN



Iurre Iriondo

## Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko katea egin nahi dute

>>> Eguaztenean, apirilaren 29an, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da, eta KAXAK eta Kezkak "denon artean kate bat eraikitzea" proposatu dute. Horretarako, jendea dantza egiten 5-10 segundoko bideo bat (formato horizontalean) grabatzeko gonbidapen zabala egin dute: "Animatu zaitetz edozein estilo edota gorputzeko atalekin".

Bideoak [info@kaxa.eus](mailto:info@kaxa.eus) helbidera bidali beharko dira eta, jasotako guztien artean, estilo anitzeko dantza osatuko da. Bakarrrik emailaz bidalita-koak erabiliko dituzte eta gaur gauerdian itxiko dute jasotzeko epea.



## Betiko sukaldaritzako errezetak online

>>> Egunotan askok jotzen dute sukaldera, bertan ordu batzuk emanda konfinamendua arintzeko asmoz. Horrekin konturatu dira Ego Ibarra batzordekoak eta, sukaldaritzakontuetan trebatu nahi dute nentzat lana errete aldera, betiko sukaldaritzako errezeta bilduma osatu eta interneteko bere orrian ([www.egoibarra.eus](http://www.egoibarra.eus)) eskuragarri ipini ditu.

Azaldu dutenez, "aurrenik, eta bitxikeria moduan, 1921. urteko 'Manual del arte de cocina. Útil para aprender a componer de comer con perfección y economía' errezeta-liburua dugu, orduko Maria Angela kaleko Saturnino de Diego inprentan kaleratua. Irakurtzeko gomendagarria, kutsu zaharreko gaztelera eta



berba galdu asko duelako, baina errezeta egin-ezinezkoak eta astunak ditu. Ostera, betiko sukaldaritzaren eredu dira Felisa Loyola sukaldariarenak, Goi-Arri elkartearen eman zituen ikastaroetako apunteetatik hartutakoak. Eta, azkenik, ... eta kitto! Euskara Elkarteak Eibarko elkarte gastronomikoekin batera 1996an ateratako liburukoak daukazue".



**San Andres  
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**IÑAKI REZOLA**  
HARATEGIA

*Zuekin gaude*

**zabalik 08:00etatik 14:00etara**  
Errebal, 23 – Tel. 943 201 729



## Haurrei kalera irtetzeko baimena eman diete

>>> Gaurtik aurrera 14 urtera arteko haurrak kalera irten ahal izango dira, baina horretarako hainbat baldintza bete beharko dituzte. Egunean behin irten ahal izango dira kalera haurrak, ordubetez, eta kilometro baten bueltan aritu ahal izango dira. Beti ere, heldu batek lagundu beharko die.

Goizeko bederatzietatik gaueko bederatzia arteko tartetan irteko dute irtetzeko aukera, eta etxetik jolasak eramanez ahal izango dituzte. Hala ere, ezin izango dituzte jolas-parkeak erabili. Haurrak sukarra edo sintomarik izanez gero, ezin izango dira kalera joan. Pablo Iglesias Espainiako Gobernuak presidenteordeak eman zituen egunean haurren ateraldien inguruko xehetasu-

nak eta, esandakoaren arabera, korrika egitea, salto egitea eta jolastea zilegi dira, hori bai, haurren arteko distantzia ondo zainduta. Horrekin batera, "puntako orduak" saihesten ahalegintzeko gomendatu du, horrela kutsatzeak saihesteko.

Haurraren batera kalera laguntzera, berriz, etxekoren bat joan beharko da. Gehienez hiru haur joan ahal izango dira heldu bakoitzarekin. Etxetik irtetzerakoan, bestalde, segurtasun tartea zaindu behar dela azpimarratu zuen Iglesiasek: ahal bada, bi metroko tartea, eta, ezin baldin bada, gutxienez metro batekoa. Landa eremuetan bizi direnak mendian ibili daitezke.

Astelehenean eman zituen Gobernuak apirilaren

27tik aurrera haurrak kalera irtetzeko aukerari buruzko xehetasunak. Hasiera batean esandakoaren arabera, gaurtik hasita 14 urtetik beherakoak irten ahal izango dira etxetik, "baina gurasoekin erosketak egitera, botikara edo banketxera joateko bada soilik". Hau da, orain arte alarma egoeran onartuta zeuden ekintzak egitera baino ez.

Albistearen zabaldu eta, berehala, sare sozialak neurria kritikatzeko zuten komentarioekin bete ziren eta askok salatu zuten "berriro haurren eskubide eta beharrak" lurrera botatzen ari zirela: "Haurrek arnaguneak behar dituzte eta ez denda zuloak", "Hau baldin bada haur eta nerabeen egoera arintzeko proposamena, ez dute ezer ulertu" moduko mezuak irakurri ahal izan ziren, besteak beste, eta sinadura bilketa ere abiatu zuten.

## AUTUAN

### KRISI MAHAIA SORTZEKO PROPOSAMENA

Krisi mahaia sortzea proposatu du EH Bilduk: "Osasun krisi larrialdi honek erantzun eta neurri bateratuak behar ditu. Proposatzen dugun krisi mahaia alderdi, eragile ekonomiko, sozial eta sindikalek osatuko lukete. COVID-19 Osasun krisiaren aurrean Eibarko Udala unean uneko erantzuna ematen ari da. Baina krisi honek sortu dituen eta oraindik sortuko dituen ondorioei aurre egiteko ardatz baten beharrean ikusten dugu Udala".



### ARRETA BEREZIA

Gipuzkoako Minbiziaren elkarteak arreta-psykologiko eta soziala emateko zerbitzua indartu du, arriskuko taldea osatzen duten paziente onkologikoei eta haien senideei laguntzeko asmoz. Kontsultak egiteko eta terapia-zerbitzuak eskatzeko, telefonoz deitu edo bideo-deiak egin daitezke: 900 100 036 doako telefonoan eguneko 24 orduetan atentitzen dute; WhatsApp bidaltzeko zenbakia 695 290 602 da; Debabarreneko telefonoa, berriz, 943 20 24 94; eta emaila zurekin@aecc.es.



**BIC GIPUZKOA**  
UP! EUSKADI

**Edificio Tekniker**

**Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR**

**tel.: 943 00 09 99**

[www.bicgipuzkoa.eus](http://www.bicgipuzkoa.eus)  
[bic@bicgipuzkoa.eus](mailto:bic@bicgipuzkoa.eus)



# #nikEibarrengastaukot kanpainak ehundaka aurpegi ditu

#nikEibarrengastaukot kanpainaren helburua, egoera hau amaitzen denean eta gure herriko establezimenduek pixkanaka pertsiak igotzen dituztenean, gastua Eibarren egitea da. Gure herria bizirik irauteko ezinbestekoa baita merkataritzari eustea eta ahal den neurrian Eibarren kontsumitzea; bestela, kaleak orain ikuste ditugun bezala ikusiko baitugu, hutsik.

Eibartarron erantzuna ikusita ez dago dudarik herritarren konpromisoa sendoa dela eta prest gaudela, eibartarrok beste krisialdian egin izan dugun bezala, egoerara moldatu eta aurrera egiteko. Herri moduan indarra, ilusioa eta solidaritatea badugu eta prest gaude ahal bezain pronto egoera honi buelta eman eta elkarrekin aurrera egiteko.

**Lortuko dugu!**



**denolan, s.l.**  
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa: 943 74 18 00  
Faxa: 943 74 17 60  
P.M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80  
Faxa: 943 20 18 41  
e-maila: denolan@denolan.es  
Muzategi, 1 (EIBAR)



**ASEGURU  
ARTEKARITZA**

Muzategi, 1 (EIBAR)  
Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41





# denetik

Urkizu, 1 – 671 075 969

bazarra

gozokiak

janaridenda

&lt;&lt;&lt; VANESSA TORRE • Dendaria &gt;&gt;&gt;

# “Herrian erosituz guztiok irabazten dugula jakin behar du jendeak”

Vanessa Torre Eibarko Dendarien Elkarteko presidentea eta Estaziño kaleko 'Burbujas y mas' dendaren jabea da. Koronabirusak eragindako egoeraren aurrean herriko dendariak beldurtuta eta triste daudela dio, baina egoerari aurre egin eta aurrera begiratzeko gogo.



## Koronabirusaren krisiak nola eragin die Eibarko dendei?

Koronabirusak herriko dendak guztiei eragin die, baina arazoak lehenago hasi ziren. Hain zuzen ere, Zaldibarko zabortegean izandako sutearen ondorioz otsailaren 14an airearen kalitatea txarra esan zuten. Orain errematea etorri da. Herriko dendak eta ostalaritzaren egoera delikatuak da. Beldurra eta tristura sentitzen dugu. Denda batzuek ez dituzte atak berriz irekiko eta beste batzuk hala nola itzuliko dira. Zenbat eta denbora gehiago pasatu, orduan eta aukera gehiago dago kalteak handiagoak izateko. Gure osasuna da

garrantzitsua, edozein guztaren gainetik, baina momenturen batean osasun-arazoak eta arazo ekonomikoak arteko oreka bilatu behar da.

## Hasierako egoerarekin alde-eratu segurtasun neurri gehiago eskura ditugunez, dendak berriz zabaltea aurreikusten duzue?

Maiatzean dendak berriz zabalteko esperantza dugu. Dendak irekiera mailaka egingo dela dakigu, baina gure nahia ahalik eta azkarren zabaltea da. Izan ere, orain ez dugu irabazirik, baina gastuak bai, eta ez dakit nola aguantatuko dugun dendak zabaldu gabe.

## Nolako mezua igorri dizue Udalak?

Udala oso arduratuta dago, Eibar zerbitzu-hiria delako. Herrian 370 establezimendu komertzial daude eta 300 itxita daude orain. Bestetik, 155 ostalaritza establezimendu ditugu, guztiak itxita. Udalarekin lankidetzan gaude herriko dendari eta tabernarietako laguntzeko programak lantzeko, baina politiki goaz, arlo burokratikoak prozesu bat jarraitu behar duelako. Hala ere, Udalak Dendarien Elkarteak ekintza komertzialak egiteko aurrekontua bikoiztu zuen, eta baita 'Umeak Eskolara' eta 'Dirulaguntzak Ikasleei' programen aurrekontua ere.

## Aurrera begira jarrita, kanpaina konkreturik pentsatu duzue?

Erosketa ohituretan aldaketa handiak izan dituen munduan bizi ginen dagoeneko eta orain eszenatoki ezberdin baten aurrean gaude. Hasteko, nola eta zein egoeratan itzuliko garen jakin behar dugu. Eta gero, herriko merkataritza sustatzeko kanpainak jarriko ditugu martxan. Herrian erosituz guztiok irabazten dugula jakin behar du jendeak eta kontzientzia hori zabaldu behar dugu. Bestetik, dendariok beste zerbitzu mota batzuk eman behar ditugu agian (etxez etxeko salmenta, adibidez).

**Twins**  
Bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82

**fasprint**  
inprimategia

**INPRESIOA PAPEREAN**  
Serigrafia - Karnet argazkia

Telf.: 943 20 16 13 - 688 68 73 85  
fasprintel@yahoo.es

Ego-Gain, 11 ac. - EIBAR - www.fasprintelbar.com

<<< OSKAR TREBIÑO • Ostalaria >>>

# “Tabernen irekiera asko luzatzen bada, batzuk ezin izango gara lanean hasi”

Oskar Trebiñok urteetako esperientzia du ostalaritzan, baina sekula ez du bizi gaur egungo egoeraren antzekorik. Zalantza egoera honetan argi bila dabilta herriko ostalariak, joko berriaren arauak ezagutzeko irrikitan.

## Tabernarien ikuspegia argitzen ari da edo zalantza egoeran jarraitzen duzue oraindik?

Mota guztietako mezuak ailegatzeko zaizkigu. Batzuk diote urte amaierara arte tabernak itxita egongo direla, beste batzuk abuztuaren zabaldu ahal izango ditugula, eta batzuek ez dakite ezer. Beraz, ez dakigu langileei zer esan ere. Ez dakigu noiz itzuliko garen eta zein baldintzatan. Gainera, ez gara gu bakarrik, inguruan jende asko dugulako.

## Ostalarien elkarteak eta erakundeek nolako informazioa ematen dizuzte?

Esan izan digute zerbait, baina

segurtasun gutxirekin. Batzuren esanak zurrumurru bihurtzen dira eta ez dago ziurtasunik, gizarte osoan gertatzen den bezala.

## Agian oraindik zaila da kalkulatzeko, baina koronabirusak nolako galerak eragin dizkizue tabernariei?

Egunetik egunera gure kaltea handitu egiten da. Orain lanean hasiko bagina, kaltea handia izango litzateke, baina hasi ahal izango ginateke. Tabernen irekiera asko luzatzen bada, batzuk ezin izango gara lanean hasi. Gero, lanera bueltatzen bagara, ezarriko diren neurriak zeintzuk izan-



go diren jakin beharko dugu. Jatetxe batek 50 laguntzako lekua bada eta gehienez 5 lagun sartzen uzten badiote, agian ez du merezi zabalitzeak.

## Etorkizunera begira jarri zarete lana nola egin jakiteko?

Horren inguruan berba egin dugu, baina ez dugu ardatzirik erabakiak hartzeko. Jokoaren arauak zeintzuk diren esaten digutenean jakingo dugu nola jokatu. Horren arabera erabakiak hartuko ditugu.

## Herriko ostalarien artean egoera honen inguruan berba egin duzue?

Gure WhatsApp taldean zer-

bait komentatu dugu. Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak egunero bidaltzen digu mezuren bat, baina momentuz nahiko gauza teknikoak dira (langabezia bideratzeko, eskaerak egiteko...).

## Udalaren aldetik laguntzarik jaso duzue?

Udalarekin berba egin dugu eta laguntzak bideratzeko asmoa dutela esan digu, baina oraingo zehaztasun gutxi dago.

## Eta bestelako laguntzarik?

Laguntzak badaude, baina koste bat dute, gerora ordaindu behar dituzulako, interesekin gainera.



caracil  
seguros

CARASA, CILVETI, LACORT y CIA – Aseguru-Artekaritza  
JUANJO IRIGOIEN

Tfnoa. 943 70 29 98

Mobila. 679 517 859

Juan Gisasola, 6 - behea  
jirigoien@caracil.com

caracil.com

1918-2020: 102 urte zurekin

Esperientzia eta kalitatea dira gure oinarriak



## Inork espero ez zuen pieza

Martxoaren erdialdean gure jardun normala eten zuen koronabirusak. Agur txikiteoari, agur zuzeneko kultura ekitaldiei eta agur gure artean erlazionatzeko genuen moduari. Tailerretan urte hasierako planak hankaz gora laga ditu Covid-19ak eta birusarekin elkarrekin nola bizi asmatzen dihardute aste hauetan. Bat-batean iritsi zaien erronka eta egoera honen aurrean euren esperientzia kontatu digute Urkotronik, Pampo eta Tekniker enpresetakoek.

**U**rkotronikek 37 urte daramatza herriko kafe eta vending makinak zapoz hornitzen eta harreman estua du herriarekin. ‘Gure ingurunea hobetzea’ da enpresaren webgunean agertzen den aldarrikapenetako bat eta asmo hori berretsi zuen alarma egoera ezarri zenean, bere baliabide guztiak herritarren eskura utziz. “Gure bezero guztiak negoziarioak itxita dituzte (gure lanaren %90) eta momentu honetan zerbitzu minimoak eskaintzen ditugu”, esan digu Carlos Abad Urkotronik enpresako gerenteak.

Jendeak esker onez hartu zuen Urkotroniken eskaintza. “DYA eta Gurutze Gorriarekin ibili gara elkarlanean batez ere (maskarak emateko), eta Udalarekin berbetan gaude kolaborazio formula desberdinak bilatzeko”.

Alarma egoera ezarri zenean Urkotronikek ez du ezer fakturatu eta Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientea (ABEEE edo ERTE) egitea eskatu zuen, baina ez du erantzunik jaso. Hala ere, beste bat da Abaden ardura nagusia. “Gure osasunak kezkatzen gaitu gehien”.

**Itxierak, telelana, segurtasun neurriak... egun batetik bestera moldatu behar izan dira tailerrak**

Urkotronikek zerbitzu minimoak eskaintzen jarraitzen du, baina zerbitzu horiek eskaintzen dituzten langileez gain,

beste guztiak etxean daude, baina guztion arteko harremana estua izaten jarraitzen du. “Skype edo telefono bitartez kontaktuan gaude, eta edozer gauzatarako boluntarioak behar ditugula aipatu izan dugunean beti egon dira laguntzeko prest”.

Abadek ez daki zein mundu aurkituko dugun alarma egoera amaitzen denean, baina herritarren arteko kolaborazioa eta elkarri laguntzea garrantzitsua izango dela uste du. “Hori edozein mundu posibletan izango da ona eta beharrezkoa”.



**CORO AZKARRAGA ALONSO**

*2020ko martxoaren 25ean hil zen*

**“Zure irrifarrak iraungo du  
gure bizitzak eta bihotzak argitzen”**

*Beti gure bihotzean*

ZURE FAMILIA





Goian, Urkotronik enpresako langileak eta, behean, Teknikerreko instalazioak.

### Pampok martxan berriz

Pampok familia enpresa bezala hasi zuen bere ibilbidea 1950ean eta 18 langilek osatzen dute lan taldea gaur egun, gertuko enpresa izaten jarraitzen du. Malgukiak egiten ditubatez ere, baina alanbreekin

forma ezberdinak lantzen dituzte bezeroek eskaera ezberdinak asetzeko.

Koronabirusaren etorrerarekin, ordea, malgutasuna galdu du Pampok eta martxoaren 30etik apirilaren 14ra atek itxi behar izan zituen, koro-

## Lehen kolpea sahiestu ondoren, etorkizunari zalantzaz begiratzen diote herriko enpresa eta tailarrek

nabirusak eragindako egoerak behartuta. "Orain ordutegi eta egoera normalean itzuli gara, gutako inork ez du etxetik lan egiten".

Hala ere, segurtasun neurri batzuk ezarri dituzte. "Aldageletan binaka aldatzen gara,

maskara daramagu egun guztian, eskuak sarri garbitzen ditugu eta lantegian bi metroko distantziari eusten diogu gure artean".

### Teknikerren etengabe lanean

Alarma egoera ezarri zenetik neurriak hartu zituen Teknikerrek eta egoeraren arabera moldatzen joan da. "Ez dugu zentroa itxi, baina erritmo ezberdinean ibili gara lanean".

Zentro teknologiko handia da Tekniker eta baldintza ezberdinetan lan egiten duten 300 langile inguru ditu (bulegoan, tailerretan, laborategian...). Beraz, egoera bakoitzari soluzio bat ematen saiatu dira. "Egoera larritu denean telelana sustatzen saiatu gara (medio digitalekin lan egiteko ohitura dugu), eta instalazioetan hainbat neurri hartu ditugu jendea ez pilatzeko". Horretarako, txanda bakoitzean langileen erdia bakarrik egoten saiatzen dira. ■



## Maria Begoña Villagarcía Barraincua

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 65 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.*





Mikel Arrillaga

MIKEL ARRILLAGA

## Confebask Country

- Gogorra izan zen, Unax... latza, aldaketa izugarria... Aiton-amonara asko hil ziren, egoitzetan bizi zirenak, batez ere. Bakarrik joan ziren, eta familiek agur esateko aukerarik ez... Etxean itxita egon behar izan genuen luzaro, soilik lanera, erosketak egitera edo zakurra paseatzera irten ahal ginen, hori bai, maskara eta eskularruak jarrita. Pentsa, ume guztiak etxe barruan etsi behar gau eta egun, eskolara joan gabe, parkeetan jolastu ezinik...

- Benetan? Nik ezingo nuke, aitona...

- Horixe baietz! Ez zegoen beste erremediorik. Baina, tira, dena txarra ere ez zuen ekarri koronabirusak.

- Nola ezetz?

- Begira, Unax... Ikasgai handia izan zen. Zaintzaren garrantzia ulertu genuen, bai pertsonena bai planetarena. Poliki-poliki pandemia gainditu, eta hauteskundeak egin ziren. Eta, harrigarria! Ezkerreko alderdiek eta ekologistek irabazi!

- Aitona, lasai... Ez motibatu hainbeste... Bihotz hori...

- Ja, barkatu... Urte asko zeramaten betikoek agintean, eta inor gutxik espero zuen aldaketa... Orduan osasun-langileen baldintzak izugarri hobetu ziren, soldatak dezente igotzeaz gain, dirutza inbertitu zen lan segurtasunaren arloan; materiala, ikastaroak... Itxialdian egunero ateratzen ginen osasungintzako jarduna txalotzera, eta sekulako prestigioa hartu zuen lanbideak. Ikusten duzu orain gazte guztiak ikasten dutela erizain

edo erizain laguntzaile izateko... Bada, garai hartan irakasle izan nahi zuten denek kosta ahala kosta.

- Beraz, dena ez zen kalterako izan...

- Esaten dizut ba... Planeta ere larri zebilen, eta hura zaintzeari ekin genion. Abiadura handiko trenaren egiten ari ziren, inondik inora ez zihoana, ama lur osoa larri zaurituko zuen astakeria zentzugabea, eta bizitza osorako zorpetuko gintuena, alferrikakoa guztiz.

- Bai, bai, garbi utzi didazu... Baina, zer gertatu zen?

- Gelditu egin zuten, eta diru mordoa aurreztu. Erraustegiak itxi zituzten, atez-ateko zabor bilketa jarri. Aberatsenei zergak igo... Gauza asko egin ziren bizimodu osasuntsuaren eta justuaren alde. Orduan utzi genion Confebask Country izateari.

- Confe, zer, aitona?

- Lasai, Unax... Txiste txar bat besterik ez...

- Oso ondo egon da aitona, baina lagunekin geratu naiz KA-LEAN txapetan jolasteko.

- Segi, segi, eta ondo pasa!!!

**“Erraustegiak itxi zituzten, atez-ateko zabor bilketa jarri. Aberatsenei zergak igo...”**



Malen Illarramendi

MALEN ILLARRAMENDI

## Kaiolan preso

Orain bi hilabete esan izan baligute etxetik irten ezinda egongo ginela hain denbora luzean, inork ez zuen sinetsiko; are gehiago, barre egingo genuen eta gure ametsgaiztorik handiengan ere ez genuen imaginatuko bizi dugun itxialdia. Baina, zer diren gauzak! Hemen gaude, etxeko lau hormen artean, aginduak betetzen, kalera irteteko baimena noiz emango zain. Hala ere, esan ohi den bezala, ez da gaitzik onik ez dakarrenik. Berrogeialdi honek ere emango ahal digu zer pentsatua eta ikasbidea ekarriko! Ikasiko ote dugu azalekoa zer den eta zer benetan garrantzitsua? Baiezkoan nago. Izan ere, zeinek esan behar zigun lehen baloratzen ez genituen muxuak eta besarkadak altxor bilakatuko zitzaizkigula? Askotan gogo barik egiten genuen mendi buelta oparirik preziatuena bihurtuko zitzaizkigula? Ondoan izaten ohituta geunden lagunena hutsunea hainbeste sumatuko genuela?

**“Zeinek esan behar zigun lehen baloratzen ez genituen muxuak eta besarkadak altxor bilakatuko zitzaizkigula?”**

"Ateak" ireki bitartean, dena dela, goza dezagun gure bizimodu azkar eta zoroak lapurtzen digun denboraz, maite ditza-  
gun etxeok, ezagutu dezagun geure burua hobeto, hausnartu dezagun hemendik aurrera zer nahi dugun eta zer ez. Seguru nago honek guztiak orain artekoa eta hemendik aurrerakoa bereiziko dituela, eman eta jasotako muxuek beste kolore bat izango dutela, besarkadak estuagoak izango direla, eta benetakoagoak. Txoria kaiolan nola, hala sentitzen gara; hegoak moztu dizkigute bolada batez, baina libre hegan egiteko egun bat gu-  
txiago falta zaigu. Eutsi! Eguna iristen denerako, hegaldi on!



## Osasuna, lanaren aurretik

Bihar (apirilak 28) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna da eta aurten ere salaketa eguna deitu du euskal gehiengo sindikalak, 'Lan osasuna bermatu, bizitza defendatu' goiburuari jarraituta, "COVID19aren krisiak eta ezarri diguten salbuespen egoerak baldintzatuta izango bada ere". Bizitza jarriko dute erdigunean sindikatuek eta instituzioentzat bizitzak lehenatasun izan daitezzen mobilizatzerara deitu dituzte herritarrak.

**S**alatzen dutenez, "azken hilabeteotan argi ikusi dugu Gobernuentzat eta kapitalarentzat gure bizitzak duen balioa. Beharrezkoa denean, kapitalaren mesedetan gure bizitzak arriskuan jartzeko prest daude, eta hala ari da gertatzen. Baina bizitza eta kapitalaren artean aukeratzeko momentua iristean, ELA, LAB, ESK, Steilas, Hiru Etxalde eta CGT (Nafarroa) sindikatuok argi daukagu: lehenbizi bizitza eta, ondoren, beste guztia. Osasunik gabe, bizitzeko eskubidea bermatu gabe, ez dago beste ezer".

Sindikatuetakako ordezkarien berbetan, "langileen lan osasuna bermatzeko baliabide nahikorik gabe lan egitera behartzen gaituzte egunero. Krisi honetan ere langile guztion osasuna arriskuan jarri dute. Funtsezko zerbitzuetan ari diren osasun langileena, zaintza esparruko langileena, garbitzaileena, garraioan dabilzanena, elikadura saltzaileena, farmazietako langileena, gasolindegietakoena... kasu guzti horietan osasuna arriskuan jarri dute, babesneurrik gabe lan egiteak bizitza arriskuan jartzea baitakar.

Hala gertatu zen Zaldibarren, zaborteziak bi langile lurperatu zituenean, berdin COVID-19arekin lanean kutsatu eta hil diren langileekin, baita aurten lan istripuan eta gaixotasun profesionalen ondorioz hildakoekin ere".

Aipatutakoekin batera, funtsezkoak ez diren sektoreetako beharginak ere arriskuan jarri dituztela diote: "Prebentzio neurri egokirik gabe lan egitera behartu dituztenean, bestelako mugimendu guztiak erabat debekatuta zeuden bitartean. Langileon bizitza kailean erabat kontrolatuta egon

da, baina lanean gure bizitza arriskuan zenean ez da ikuskaririk etorri".

Lantokietan, bihar mobilizazioak sustatzeko dei egin dute: "Argazkiak eta bideoak egin eta zabaldu, #Bizitza-Defendatu traola erabilita. Eta etxean ere, grabatu bideo labur bat, zuen salaketa edo aldarrikapena adieraziz, eta zabaldu sare sozialetan". Leiho eta balkoietan xingola beltza ipintzera animatu nahi dute jendea, "lanagatik hil edo gaixotu direnekin elkartasuna adierazteko eta horrelako egoerak salatze".

**GARBITEGIA**  
Speed Queen.  
autozerbitzua

Ego-Gain, 15  
bus geltoki ondoan

Ordubetean zure errota garbitu eta sikatuta

Konfinamenduan  
**ZABALIK**  
jarraitzen dugu  
%50-eko  
deskontuarekin  
08:00-22:00

<<< **ANDER BARRENETXEA** • Mendi korrikalaria

# “Abuztua baino lehen lasterketaren bat egitea oso zaila ikusten dut”

Mendian bikain moldatzen da Ander Barrenetxea Leyaristi. Han egiten du kirola eta maila handia erakusten du, baina koronabirusak etxean egotera behartzen dio. Mendi korrikalari eibartarra Euskal Selektzioaren kidea da eta Euskal Mendizale Federazioak elkarrizketatu egin du bere egoera zein den ezagutzeko.



## Nola daramazu etxealdia?

Egia esan, nahiko ondo daramat egoera berri bezain ezberdin hau. Garbi dago ez dela nahi edota aukeratu dugun egoera, baina hau da etorri zaiguna; beraz, ahalik eta ondoen kudeatzea tokatzen zaigu.

## Sasoia eusteko zein entrenamendu mota egiten ari zara?

Momentu hauetan, etxean gauden bitartean, sasoiari ahalik eta ondoen eusteko arrabola erabiltzen dut gehienbat. Indarrezko eta kore ariketa dezente ere egiten ari naiz, eta TRXa eta Bosu moduko tresnak erabiltzen ditut horretarako. Batez ere urtean zehar gutxiago egiten ditudan edo pixka bat nahigabe alde batera uzten

**“Momentu hauetan nire helburua da eskura ditudan baliabideekin ariketa egitea eta ahalik eta sasoirik onenari eustea”**

ditudan ariketa horietan nago murgilduta.

## Aurten zein egutegi egiteko asmoa zeneukan?

Hasiera batean Espainiako Kopa, Espainiako Linea eta Ultra txapelketak eta, nola ez, Zegama Aizkorri egitea zen nire asmoa, tartean beste bi edo hiru lasterketa sartuaz prestakuntza moduan.

## –Ekainetik edo uztailetik aurrera zerbait jokatu denaren esperantzarik baduzu?

Berrogeialdiarekin hasi ginenan Zegama egiteko aukera ere ikusten nuen, baina egunak pasatzen joan diren neurrian abuztua baino lehen lasterketaren bat egitea oso

zaila ikusten dut. Nire kasuan behintzat, orain, lasterketetan ez pentsatzen ahalegintzen naiz, oso egoera berezia zein berria bizi baitugu. Momentu hauetan nire helburua da eskura ditudan baliabideekin ariketa egitea eta ahalik eta sasoirik onenari eustea. Normaltasunera gerturatzen goazen neurrian izango dut lasterketetan pentsatzeko denbora.

## Zein ziren 2020rako zure helburuak?

Esperantzarik handienak Espainiako Ultra Txapelketan eta Zegaman nituen jarriak. Helburuak, berriz, ultra txapelketan iazko 8. postua hobetzea eta Zegaman 4 ordu eta 20 minutuko denbora jaiste ziren.

## FERNANDO VALENCIANO YEBRA

(2020KO APIRILAREN 8AN HIL ZEN, 49 URTEREkin)



*Eskerrik asko urte hauetan eskaini diguzun guztiagatik*

Eibarko Klub Deportiboko SQUASH TALDEA











&lt;&lt;&lt; LAURA ARANZABAL • Ikaslea &gt;&gt;&gt;

# “Unean unekoa disfrutatu behar dugula ikasi dut”

Etxeko denontzat ari da izaten gogorra konfinamendua: helduak, adinekoak, umeak, gazteak... Gaurko elkarrizketa honetara 11 urteko Laura Aranzabal ekarri dugu egoera nola bizitzen ari den konta diezagun. Izan ere, denok dakigu zein garrantzitsua den nerabeentzat lagunartea, eta hilabete pasatxo daramate haiekin egon gabe.



## Nola ari zara eramaten itxialdia? Zer egiten duzu orduak betetzeko?

Egia esan, nahiko ondo daramat; gauza ezberdin eta dibertigarriak egiten saiatzen naiz ez aspertzeko. Errutina bat jarraitzen dut: goizetan gosalduta, dutxatu, pixka bat jolastu, irakurri (eguraldi ona badago balkoian), eta bazkaldu egiten dut; arratsaldean, lagunekin hitz egin, pelikulak edota serieak ikusi, kirola egin... eta konturatu orduko 20.00ak dira, eta txaloak egiten ditugu. Afaria prestatzen ere laguntzen dut (sukaldatzeko trebetasun handia hartu dut aste hauetan), eta gauean YouTube aritzen naiz, lotara joan aurretik. Erritmo horretan, egia esan, egunak oso azkar pasatzen dira.

## Zeren falta sumatzen duzu etxean daramazun hilabete honetan?

Bideodeiak egiten ditut, eta horrek jendearekin harremanetan egoten laguntzen duenez, ondo sentitzen naiz. Esango nuke kalean libre ibiltzea dela gehien botatzen dudana faltan.

## Zein prozesura erabiltzen du zure ikastetxeak klaseak emateko? Zuk pertsonalki nola daramazu?

Gure eskolan, San Andres ikastetxean hain zuzen, etxerako lanak egiteaz gain, onli-

**“Kalera irtetzean, dantza, kirola eta bestelako ekintzak egingo ditut”**

ne bidezko klaseak ere egiten ditugu bideodeien bitartez. Nik nahiko ondo daramat eskolak erabiltzen duen ikaste-formatu hau, baina onartu beharra dut momentu batzuetan etxeko lan gehiegi ditugula sentitzen dudala. Baina... berez klaseko orduak etxean bete behar ditugunez, ulertzen dut.

## Eskolaz kanpoko ekintzek (Ingelesa, dantza, edo bestelakoak) ere martxan jarraitzen dute? Nola?

Ingelesa eta dantza egiten ditut eskolaz kanpoko ekintza moduan. Ingeles klaseen kasuan, bideodeien bitartez egiten ditugu klaseak, eta gero etxerako lanak bidaltzen dizkigute. Dantzan, ordea, irakasleak bideo batzuk bidali dizkigu guk gure kontura egin ditzagun; hala ere, hurrengo astelehenean klaseak bideodeien bitartez egiten hasiko gara.

## Kalera irteteko baimena ematen digutenean, zer da egingo duzun lehen gauza?

Ez daukat zalantzarik, oso garbi daukat zer egingo dudan: kalera irteteko baimena ematen digutenean, korrika, dantza, kirola eta bestelako ekintzak egingo ditut, hori baita gehien botatzen dudana faltan. Izugarriko gogoia daukat kalean kirola egiteko. Eta horren guztiaren gainera, noski, maite dudana jendearekin denbora eskainiko diot.

## Zerbait ikasi duzu egoera honetan?

Bai, noski. Unean unekoa disfrutatu behar dugula ikasi dut, ez dakigulako egun batetik bestera zer gertatuko den. Horrelako egoera batekin dena aldatu daitekeela konturatu naiz, eta horregaitik diot momentu guztiak aprobetxatu behar ditugula!!!



## MARTA GUENAGA GOMEZ

2010-IV-4

“10 URTE MARTA GABE”

ETXEKOAK





2019an 506 erditze izan genituen Mendaroko Ospitalean; eta aurreko urtean, 605. Lantaldea 10 lagunek osatzen dute, eta lortzen dituzten emaitzak eskaintzen duen kalitatezko zerbitzuaren islada dira.

## Mendaroko emaginak, 24 ordu erditzearen une magikoan

Emakumeek gero eta informazio gehiago dute, eta parte aktibo izan nahi dute euren haurdunaldian. Bikote askok, eskualdekoak eta hemendik kanpokoak ere, Mendaroko ospitalea aukeratzen dute euren seme-alabak mundura ekartzeko. 10 profesionalak osatzen dute Mendaroko ospitaleko emagin-taldea. 20 urte daramatzate 24 orduko lanaldiak egiten, eta orain, bat-batean, eztabaidatu gabe, ospitaleko zuzendaritzak txanda hori 12 ordutara pasatzea erabaki du. Emaginen lantaldea ez dago ados eta Zuzendaritzaren “inposizioa” salatu dute.

**M**undurako etorreran babesle eta bidelagun dira emaginak. Osasunari lotuta dauden beste ofizio guztiak bezala, emaginen lanbidea aldatzen joan da historian zehar, bai ezagutzari bai praktikari dagokienez.

10 profesionalak osatzen dute Mendaroko ospitaleko emagin-taldea (9 emakumezko eta gizonezko bat). 24 orduko lanaldiak egiten dituzte eta denak bizi dira Mendarotik urrun, 50 km baino gehiagora. 24 orduko lanaldiak lagundu egiten die lana eta familia ba-

teragarri egiten eta errepidean joan-etorri gutxiago egiten.

24 orduko txandaren auzia ez da berria. Mendaron orain dela 20 urte hasi ziren horrela lan egiten, eta emaginek abantaila asko ikusten dizkiote. “Gaur egun plantilla finkoa osatzen dugun 10 emaginak urrutitik etortzen gara. Eta ez da kasualitatea Mendaron egotea. Ospitale hau aukeratu dugu, orain arte behintzat 24 orduko txanda egitea posible izan zaigulako”. Diotenez, “txanda horrek erditze-prozesuan emakumeari eskaintzen

zaion arretan jarraikortasuna ahalbidetzen du; segurtasunean, kalitatean eta berotasunean oinarrituta”.

Urte horietan ez da izan lanaldiaren iraupenari edo emaginek lanaldiaren barruan izandako nekeari egozteko moduko emaitza kaltegarririk.

Ospitaleko Zuzendaritzak emaginen 24 orduko lanaldia 12 ordura pasatzea erabaki du, “antolaketa, lan-segurtasun eta asistentzia alorreko arrazoiak argudiatuz”. Erabakiak Erditze Arloko emaginen kezka eta haserrea ekarri

du, besteak beste, ez dutelako euren iritzia kontuan hartu eta ez zaielako negoziatzeko aukerarik eman.

### Emakumeen babesa

“Eztabaidatzeko aukerarik gabe”, maOiatzaren 4tik aurrera 24 orduko txanda desgertu egingo zela adierazi zien Zuzendaritzak. “Orduan erabaki genuen gurekin erditu diren emakumei babesa eskatzea”, azaldu digute emaginek. Eta erantzuna demasekoa izan da: “Mezu eta testigantza mordoa ailegatu dira. Hunkigarria izan



**Mendaroko Ospitalean erditu diren emakume askok euren babesak eta berotasuna eskaini nahi izan diete `gure Ospitaleko' emaginei. Emaginen 24 ordutako txanda mantentzearen alde azaldu dira.**

da! Eta horrek gurekin erditu diren emakumeen asebetetzea erakusten du. Benetan pozgarria izan da”.

**“Ni Mendaron erditu nintzen”** Mendaroko ospitalean erditu diren emakumeek idatzitako mezuetan oso argi ikusten da euren iritzia zein den. “Ni Mendaron erditu nintzen. Bertako emaginei, nire emaginei, eta beraien 24 orduko lan-jardunari babesak eskaintzen diot” goiburupean hainbat testigantza aurkeztu dituzte. Irati Salaberriak dioenez, “oso pozik gaude jasotako arretaz, eta oso harro horrelako zentro bat izateaz, horrelako langile inplikatuekin eta dituzuen baliabideekin”.

Ainhoa Amenabarrek azaldu duenez, “erditze gogorra izan arren, une oro errespetatu ziren gure nahiak erditze aurretik, erditzeko unean eta ondoren. Oso babestua sentitu nintzen eta laktantziare-

kin izugarritzko laguntza jaso nuen. 24 orduko jardunari esker jarraipen hori egin zidaten, 24 orduz pertsona erreferente bat izan nuen, ze badirudi erditzea gauza erraza dela baina ez da horrela, eta profesionalen babesak asko laguntzen du prozesu horretan”.

Presioaren eraginez, Mendaroko ospitaleko Zuzenda-

ritza-taldeak onartu egin du akatsa egin duela, “lanaldiaren aldaketa ez zaiolako Langile Batzordeari jakinarazi”. Hala ere, bere horretan jarraitzen du Zuzendaritzak, eta, “epea apurtxo bat atzeratu bada ere, 24 orduko txanda desgertarazteko asmoarekin jarraitzen dute”.

Mendaroko erditze-zerbitzuaren funtzionamendu ona eraz kuantifika daiteke emakumeen asebetetze-maila handiarekin, “erditze-arretaren adierazleen emaitza bikainekin eta `gure ospitalean´ erditu nahi diren eskualdetik kanpoko emakumeen eskari handiarekin (% 25 2019an)”, diote.

“Egia da, halaber, hori ez dela beti posible izaten asistentzia-agertoki guztietan, baina bai Mendaroko ospitalean. Hala erakusten du urte hauetan emakumeen gogobetetze profesionalak”, azaldu dute.

**“24 orduko txandak erditze-prozesuan emakumeari eskaintzen zaion arretan jarraikortasuna ahalbidetzen du”**

## AINERE TOLOSAREN TESTIGANTZA

### “Mendaron erditu nintzen”

#### EMAKUMEA, BERE ERDITZEAREN JABE, ERDITZE KONTZIENTEAREN ALDE

2015eko urtarrilaren 28an erditu nintzen, Mendaroko ospitalean. Bi erditze izan ditut, bata Donostian eta bestea Mendaron. Biak primerakoak, baina alderatzen jarritz gero, bigarrenengoarekin jarraitzen dut. Jarraitu esaten dut, oraindik ere, beraiekin harremanetan jarraitzen baitut. Bertan erditutako umea aitzakiazat hartuz, 5 urte pasa eta gero zer moduz gauden galdetzen digu hango emaginak, eta nik, nola ez, urtero, nire alabaren urtebetze egunean mezu bat bidaltzen diot, eta, bide batez, emaginak bere lanaren betetasuna eta poztasuna adierazten dizkigu emotikonoen bidez, bere bihozbera agerian utziz. Bihozbera, gizatiar... horri jarraiki doa dena, horregatik aukeratu dut bigarrena.

Bigarrenengo haurdunaldian sentitu nuen haurdunaldia nirea egin nahi nuela, hau da, kontzientea, eta erabaki nuen nire eskubide eta zalantza guztietaz informatuko nintzela, nire gustura,

nirea baita erditzea. Hori guztia modu naturalean bizi izan nuen, beharko lukeen moduan, ezta? Horren sinplea dirudi; amatasuna bizi, norberaren errealtatetik. Baina errealtateak, gizartearenak, badu bere itzala, kontrolarena, haurdunaldia eta erditzea kontrolatu nahi izatearena, eta horrek beldurra sortzen dio emakumeari. Horri erronka egiteko gogoz nengoen ni, eta hala, Mendaroko ospitalean erditzea proposatu zidan bikotekideak, entzuna baitzuen erditzeak bertan giro goxoan egiten zirela. Ez nion ez baietzik ez ezetzik esan, pentsatuko nuela.

Azkenean Mendaron erditzea erabaki nuen eta ospitaleak hala eskatuta, eskutitza bidali genuen eskaria egiteko. Eta non gure lehen sorpresa ederra, bertara joateko eta lasai hitz egingo genuela esan baitziguten. Hortarako, gure erditze-plana idatzita ekartzeko ere esan ziguten. “Gure erditze-plana?”. Horrek, jada, oso

itxura ona hartzen zuen. Pozik eta ilusioz ekin nion nola erditu nahi nuen idazteari, erditzea, behin-goz, nirea sentitu nuen. Ni, ama, erdigunean jarri nintzen.

Hala, hitzordua eman ziguten eta ospitalea ezagutzeaz gain, bertako langileekin egon ginen, lasai, tratu ederrean, harremanean, gizatiar...

Erditzeko 2 hilabete falta arren, orduan jakin genuen bertan erditzea nahi nuela, jende harekin. Berdin zitzaidan gela handia, txikia, dutxa... nik oso garbi nuen tratu ona behar nuela nire inguruan, errespetua eta segurtasuna sentituko nituen momentuak, ez guneak. Espazioak ez zidan axola, harremana behar nuen, beste behin ere, gizatiarra.

Erditu nintzen. Bertan izan nituen nire ondoan emaginak. Horixe baitzen behar nuena, emozionalki niri eusteko euren maitasuna, goxotasuna, errespetua, zaintza... gizatiarra, beste behin ere.

Eskerrik asko ekipo guztiari, emakumea erdigunean jartzen erakusteagatik, gure eskubideak zeintzuk diren gogorazteagatik, zuen lanbidea maitasunez eta bokazioz egiteagatik.

Mendaroko ospitaleko emaginen lana goستن dut, eta lau haizetara zabaltzen dut euren lana, eta horren aurka traba egiten dion edozer lan-baldintza errespetatzen ez bada, horren aurka ere lau haizetara zabaltzen dut euren aldarrikapena.

Bada garaia guztion lanak kalitatez eta kontziliazioan bermatzeko unea, eta hori Mendaron posible da. Jarrai ezazue bide beretik, jaso ezazue bertako langile guztiok nire eskertza.

Mila esker, gizatiarrak izateagatik. Besarkada bana,

EMAKUMEA ERDITZEAREN ALDE EGITEN DUTEN EMAGIN HORIENTZAT, ZUEN 24 ORDUKO LAN JARDUNARI BABELSA ESKAINTZEN DIOT.

Ainere Tolosa

# Lubizarreta

*Ore amarekin egindako  
ogi artisauaren tradizioa 1957tik*

**Gure Dendak**

Tiburtzio Anitua (Eibar)	943 200 404
Olarreaga auzoa (Eibar)	943 202 649
Bizkaia Etorbidea, 3 (Ermua)	943 173 617

10 ERRONKA

OSASUNTSU JATEKO

**Zaloa Otaduy**Farmacook Nutrizio  
Eskolako arduraduna  
farmazialaria eta nutrizoan aditua

## Elikagaia izan dadila gure sendagaia

Benetan garrantzitsua dena ahazten ari zitzagun, beti eta natural-ki garrantzia izan duten gauzak eta gizakiak berez badakizkienak. Ahazten ari zitzagun naturan parte garela, talde baten parte, eta gure osasuna eta ongizatea ez dela posible inguruarenarekin lotuta ez bada. Eta ahaztu egin zaigu jakin badakigula zelan elikatu behar garen.

Zelan ez dugu ba jakingo? Naturalki jakin izan dugu beti, baina horrenbeste produktu arraro, moda arraro eta informazio ezberdinen artean, ahaztu egin zaigu; eta mirari baten zain gaude beti, dieta berri baten zain, produktu zoragarri baten zain, baten batek nola elikatu behar garen eta zer, zenbat eta noiz jan behar dugun esateko zain... Eta nahastu egin gara.

Elikatzeko modu zentzudun bakarra dago, bakarra. Defentsa sistema indartzeko, esteak zaintzeko, gibela babesteko, pisua kolesterola edo tentsioa orekatzeko, gaixotasunak saihesteko, nerbio sistema zaintzeko, hobeto lo egiteko, mikrobiota zaintzeko... bakarrik bat, guretzat, gure seme-alabentzat, eta munduan bizi garen danontzat. Bakarrik bat, osasuntsua eta jasagarria dena. Dena batera zainduko duena.

### Zer gertatu zaigu?

Badira 70 urte inguru, elikagai industriak jateko aproposak diren produktuak sortzen hasi zirela, ahalik eta gehien saltzeko helburu bakarrarekin, edozer gauza saltzen duen edozein enpresak bezala.

Hortarako, ezin gozoagoak, merkeagok, atraktiboagoak diren gaila, goxoki, saltsa, hesteki, edari eta abar luze bat sortzen hasi ziren, eta gu geroz eta gehiago kontsumitzen, oso gozoak eta adiktiboak direlako, eta elikagai bezala saldu dizkigutelako.

Eta gure etxeetako eguneroko menuetan sartu ditugu, elikagaiak izango balira bezala, gure osasuna bermatzen.

**“Ez dezagun jarraitu dieta miresgarri edo produkto exotiko baten zain, ez dezagun jarraitu inork zer, noiz eta zenbat jan behar dugun esateko zain, eta ez dezagun jarraitu gure osasuna kaltetzen”**

Pausoz pauso joango gara ...eta kitto!-n atal berri honetan, elikadura osasuntsuago baten bila, aurrera egiten, gai ezberdinak lantzen.

### Pausoz pauso.

Lehen pausoa, osasunean eta bizitzaren arlo guztietan, minik ez egitea da. Mintzen gaituena saihestea. Ezinbesteko pausoa eta garrantzitsuenak.

Hasi gaituzen saihesten, ahal dugun neurria, bakoitza norberaren erritmora, gaur egungo gaixotasun gehienekin lotuta dauden jangarri ez osasuntsuak, eta aldi berean elikagaiei lekua uzten.

Ez da erraza izango, bide errazena korranteak eramaten uztea baita. Baina bide zuzena behar-rean, nork aukeratzen du biderik errazena, gure eta seme-alaben osasunaz ari garenean? Esfortzu bat egin beharko dugu, bai, horrenbeste indar duen korrantearen kontra joateko. Aitzakiak alde batera utzita egin dezagun esfortzu hori danok batera, nahiz eta erraza ez izan.

Euren diru irabaziaz alde batetik, eta gure osasuna bestetik jokuan dauden borroka honetan, aukeratu dezagun gure osasuna.

Ez dezagun jarraitu dieta miresgarri baten edo produkto exotiko baten zain, ez dezagun jarraitu inork zer, noiz eta zenbat jan behar dugun esateko zain, eta ez dezagun jarraitu gure osasuna kaltetzen.

Sinistu dezagun badakigula nola elikatu behar garen eta modu bat dagoela bakarrik:

- Elikagaiekin egindako elikadura, mintzen gaituzten produkturik gabe.
- Elikagai begetal eta integralak aukeratuz gure elikaduraren oinarri giza.
- Eta bertako elikagaiak aukeratuz, gure osasuna eta gure ingurua batera zaintzen direlako. Jasangarritasuna eta osasuna lotuta daudelako. Ezin direlako bata bestea gabe ulertu.

Elikaduraren gai honetan, denboran atzera egin beharra dugu eta elikagai bat aukeratzekoan, imaginatu ea zer irudituko litzaiokeen gure amamari. Beraiek naturalki baitzekiten zelan elikatu. Eta hortik joan. Benetan garrantzia daukana gogoratu.





# Gertuko produktu freskoenak orain ere eskura

Eusko Jaurlaritzak aldi baterako nekazal eremuko produktuen zuzeneko salmentarako egiten diren merkatu eta azoka tradizionalak eten bazituen ere, erabaki hori bertan behera laga ondoren, baserritarrak eta bestelako ekoizleak berdura plazako postuetara eta zapatueetako merkatuetara bueltatu ahal izan ziren, euren produktuen salmenta zuzena berreskuratuz. Hori bai, jarduera hori burutu ahal izateko alarma egoeraren ondorioz ezarritako segurtasun neurriak zorrotz bete behar dituzte.

**N**ekazaritzako eta abeltzaintzako produktu eta elikagaiak zuzenean saltzeko azoka eta merkatu tradizionalak (normalean astean behin egiten direnak) egin daitezke, baina ezinbestekoa izango da hainbat osasun-neurri errespetatzea. Jai-giroko edo gizarte- eta aisialdi-izaera duten azokak eta merkatuak, aldiz, eten egingo dira aldi baterako.

## Eibarko Plazia zabalik

Astelehenetik zapatara dago zabalik Bidebarrieta kaleko Plazia, 08:00etatik 12:00ak arte, “eguztenetan, barixakuetan eta zapatuetan jende gehiago egoten bada ere”. Idoia Urzelai da ortuko pro-

duktu freskoak saltzen egoten direnetako bat: “Lau saltzaile gara 70 urtetik azpikoak; hortik gorakoak jubilatuta daude, baina ohitura dutelako etortzen dira”. Gaur egun bizi dugun egoera dela-eta, saltzaile gutxiago daude Eibarko Pla-

zian: “Aurreko egunean udaltzainak etorri ziren eta 70 urtetik gorako jendea etxera bidali zuten, segurtasun-neurrien arabera ezin baitute bertan egon”. Hurrengo egunean berriro abisatu zieten eta guztiek dakite zer dagoen: “Arauk

bete behar ditugu; ez badiugu betetzen, merkatu plaza itxiko dute. Azken batean, nire senarra baserritik bizi da, baita hemen saltzen duten beste batzuk ere... Merkatu plaza ixten badute, akabo”.

Baserritarrek jenero gehien izaten duten sasoia ez da oraingoa, “baina gure behiek eta ardiek goizez eta arratsaldez ematen dute esnea”, dio Urzelai. Erosleei dagokienez, nabaritu dute jende nagusia etxean geratzen dela orokorrean, “baina oraindik etortzen dira 80 urtetik gorako baten batzuk. Badabil jendea, baina jarritako mugek asko baldintzatzen dute”.

Urte zaila ari gara bizitzen, baina baserritarren kasuan are

**“Udaltzainak etorri ziren eta 70 urtetik gorako saltzaileak etxera bidali zituzten”**

**“Eibarko plazan ez da supermerkatuetan adina ilararik sortzen”**



**Doniense baserriko ekoizleek Gipuzkoako Gaztenek saria irabazi zuten orain dela urte batzuk euren produkzioari emandako proiektioarengatik.**

zailagoa izaten ari da, aurreko hilabeteetan ere zoritxarra ate joka izan baitzuten: “Lehenik eta behin Zaldibarko kontua izan genuen eta horrek kalte handia eragin zigun. Gure produktuak kutsatuta zeuden susmoa zabaldu zen eta hori oso mingarria da, ez baita zuzena gainera. Inork ez digu esan gure produktuak kutsatuta daudenik. Denetarik entzun behar izan dugu, baina hemen jarraitzen dugu”.

Administrazioak agindutakoa bete eta “NBEk (EPI) erabiltzen ditugu (eskularruak, maskarak, babes-biserak, eskuak garbitzeko alkohola...); horrez gain, hainbat arau ezarri ditugu, sarreran irakurri

daitezke”. Saltzaileen artean eta erosleekin metro eta erdiko distantziari eusten diote, “lurrean horretarako margo-tu ditugun hainbat lerroekin. Gainera, hemen ez da supermerkatuetan adina ilararik sortzen”, diosku Idoiak.

#### **Jarraituak izatearen sentsazioa**

Gure herriko Azataporrua produktu ekologikoen kontsumo elkartean betiko martxari eusten diote, Juan Gisasola kalean duten lokalean gaur egun elkartzen ez badira ere: “Bakoitza bere aldetik joaten da eta berarena jasotzen du”. Itziarko Egia auzoko Doniense baserriko produktuak jasotzen dituzte, batez ere. Nerea eta Mi-

**“Maskarillak eta eskularruak erabiltzen ditugu, produktua guk bakarrik ikutu...”**



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com

**dica** @ www.dica.es

Arretxe 9  
20730  
Azpeitia  
943857244

Arragueta 27  
20600  
Eibar  
943857244



riam Arrizabalaga dira produktu ekoizleak, batez ere ortuan, negutegian eta aire librean landutako produkzioarekin.

Miriam eredu ekologikoa bultzatzen duen Biolur elkar-teko presidentea izandakoa da; berarekin izandako solasaldian pandemiarekin hasieran sortutako ezinegon aitoritu digu: "Mezu desberdinak hel-tzen zitzaizkigun, egun batetik besterako neurri berriak. Ez zegoen argi zer egin banaketa arloan, azoken aurrean zela-ko jarrera hartu, herri batetik bestera ere aldaketak zeuden".

Lehen egunetan, gainera, pertsekuzio sentsazioa ere bizi izan zutela dio Arrizabalagak: "Administrazioak hasieratik neurri gogorak hartzearen alde jo zuen, debekuak tar-teko zirela. Gerora gauzak normaltzen hasi badira ere, isunak jarri dira etxez-etxe-ko zerbitzua eskaintzeagatik, enpresa handiekin horrela ez dutenean jokatu".

#### Erosle berriak azokan

Beste talde batzuei ere saltzen dizkiete euren produktuak Donienekoek, Debako azokan parte hartzearekin batera: "Hartzen ditugun segurtasun-neurriak nahikoak direla esan-

go nuke: maskarillak erabiltzen ditugu, eskularruak, beste mahai bat jartzen dugu tar-tean, produktua guk bakarrik ikutzen dugu... Jendea ez da pilatzen halakoetan, ez ekoiz-leak, ez kontsumitzaileak". Argi dago euren jarduna aldatu egin dela, eta egoerak lana biderka-

tu diela, elkarren arteko mugak zaindu beharrak aparteko lana eragiten baitie: neurriak hartu, garbitasuna zaindu...

Baina dena ez da kalterako izaten eta alde positiboak ere nabarmentzen ditu Miriamek: "Azokan ez nuke esango jendea galdu dugunik, batez ere berria

etorri zaigulako, etxeetara-eta eramateko beste sistema batzuk abiatu ditugu... Oroko-rreran, gainera, jendeak orain gehiago jaten du etxean, ez dago besterik; arrautza gehiago saldu dugu, esaterako. Aukera moduan ikusi beharko dugu hau guztia". ■



#### Etxez etxeko zerbitzua

Debabarrenako bederatzi ekoizle- etxerainoko zerbitzua eskaintzen dute, baserrietan ekoiztutakoa zuzenean bezeroei eskaintzeko: Eibarko Loixola (barazkiak) eta Iturrua Goikoa (txahal-haragia) baserriak; Soraluzeko Egotza baserria; Elgoibarko Txillarre, Altzola Beraseta eta Basueta baserriak, eta Nagore Dorronsoro eta Juan Villena ezti-ekoizleak; Debako Kortaberri ba- seria eta Mutrikuko Ekoalboraz.


Azataporru elkartekoek  
Elgetarako errepidean,  
J. Gisasola kalean, dute  
lokala.



**ZURE OSTATUA**  
Eibar erdian eta  
Euskal Herriaren  
bihotzean

[www.eibarrooms.com](http://www.eibarrooms.com)  
Ego Gain, 17 ac

**eibarrooms**  
AUTO CHECK-IN



**LORADENDA**

San Juan, 1  
Tel. 943 20 33 29

- Lora eta landare natural eta lehorrak

- Enkarguak etxera



**Isasi kalea, 7**  
943 20 11 16

**jatetxea**

Alarma egoeran  
**MENUA 16€tan**  
(edaria kanpo)

Karta edota zuen proposamenak  
**ETXERA** bidaltzen dizkizuegu

Sartu **restaurantechalcha.es**  
webgunean eta egin zure erreserba





## Udal Artxiboak konfinamendu sasoiko argazkiak bidaltzera animatu nahi ditu eibartarrak

Konfinamendu-aldi honetako oroimena izateko, Eibar-ko Udal Artxiboak eibartar guztiak animatu nahi ditu leihotik edo balkoitik argazkia egitera: “Izen-abizenak jarri eta, parentesi artean, zein kaletatik egin duzun gehitu. Posta elektronikoz bidali daiteke (artxiboa@eibar.eus) edo, bestela, zuzenean lainora igo,

Udalaren webgunean dagoen loturaren bidez”. Jasotako argazki guztiekin ‘Eibar nire leihotik’ erakusketa egingo da. Artxibotik esan dutenez, “zuen oroimena izan nahi dugu. Iru-di-banku bat sortu nahi dugu, etorkizuneko belaunaldiei eibartarrek koronabirusaren pandemiari nola egin zioten aurre erakusteko”.



## Uztaileko eta abuztuko udalekuetarako aurrematrikula zabalduko du Udalak

‘Oporrak afariketan’, ‘Udan jolasean’, ‘Firin-faran’ eta ‘Umeak firin-faran’ udalekuean izena emateko aukera egongo da, gaurtik hasita maiatzaren 5era bitartean. Momentuz aurrematrikula egingo da bakarrik eta, badaezpada, ordainketarik ez egitea eskatu dute arduradu-

nek. “Aurtengo kanpainaren antolaketa eta garapena osasun-arloko agintariek ematen dituzten jarraibideek eta hartzen dituzten neurriek baldintzatuko dute”, aipatu du Udalak. Beraz, ezarritako datetan aldaketak egon daitezke. Informazio gehiagorako [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean begiratu.



## San Juan jaien ospakizuna airean

Miguel de los Toyos alkatea ez dago oso itxaropentsu San Juan jaien ospakizunari dagokionez. Hala azaldu zuen orain dela egun batzuk Radio Eibar-Cadena Ser irrastian egindako elkarrizketan. Udalak hainbat egoera posible aztertzen dihardu, baina oraindik ez du erabaki jaiak bertan behera laga ala ez. “Osasun eta gobernu-erakundeen argibideen arabera hartuko ditugu neurriak”, De los Toyosen berbetan. Sanjuanak ohiko moduan ospatzeko aukerarik ez balego, streaming edo sare sozialen bitartez ospatzeko aukera aztertzen dihardu Udalak, beste aukera batzuren artean. Jaiak bertan behera uzteko erabakia gizarte osoak adostu behar duela uste du alkatea: “Gertatu ezin dena da herri batean jaiak ospatzea eta beste batean ez”.

## Etxebegiak tailer-lehiaketa

SADEk eta IKERTZE kultur elkar- teak indarrak batu dituzte Etxebegiak ekimena antolatzeko. Film laburrak sortzeko tailer-lehiaketa bat da, eta bereziki familiei zuzendua dago, baina edozein parte-hartzailek edo pertsonaldek har dezake parte. Antolatzaileek zinemarekin eta kultura-sorkuntzarakin loturiko zaletasuna bultzatu nahi dute, eta, horrez gain, dibertimendua eta ikaskuntza uztartzen dituen egitasmoa zabaldu, konfinamendu-egunak hobeto aprobetxatzeko. Ekimena maiatzaren 1era arte luzatuko da eta interesdunek [www.sadecine.com](http://www.sadecine.com) web orriko Etxebegiak atalean kontsulta dezakete parte hartzeko sistema.



## Marrazki erakusketa digitala

Etxean geratzeko derrigorrezko agindua betetzen ari diren umeentzat, etxean egindako marrazki zein irudien erakusketa digitala antolatu du Eibarko Udalak. Haur guztiek har dezakete parte, konfinamenduaren inguruan egiten dituzten marrazkiekin. Lanak [haurrerria@gmail.com](mailto:haurrerria@gmail.com) helbidera bidali beharko dira.

&lt;&lt;&lt; AITOR GUERRERO • Ikus-entzunezkoen sortzailea &gt;&gt;&gt;

# “Tablet eta ordenagailu batekin egin dugu La Oreja de Van Goghen bideoklipa”

Aitor Guerrero eibartarrak Bilboko TAOM agentzian egiten du lan, ikus-entzunezkoen arloan batez ere. TAOM disziplina anitzeko taldea da eta martxoaren erdialdean proiektu handi bat zuten esku artean: La Oreja de Van Gogh taldearen 'Abrazame' abesti berriaren bideoklipa grabatzea. Baina koronabirusa gurera iritsi zen eta hasierako planak berregin behar izan zituzten. Sormena lagun eta alarma egoerari aurre eginez, maisulana sortu dute.

## Hasieran zein asmo zenuten bideoklipa egiteko?

Taldeak lau urteren ondoren lan berria kaleratzen zuenez, bideoklipetan playback indartsu bat egitea zen gure asmoa. Martxoaren 13an, barixakua, bideoklipa grabatzeko dena prest genuen. Munoan grabatu behar zen, Markinan dagoen jauregi batean, eta kamioia materialez bete genuen grabaketa egiteko. Muntaia egiten hasi ginen, baina material guztia kamioian sartu behar izan genuen berriz ere, koronabirusaren ondorioz grabaketa bertan behera geratu zelako. Alternatibak bilatu genituen, baina ezer.

## Zer egin zenuten orduan?

Paper zuriaren aurrean geratu ginen berriz ere eta proiektu guztia birplanteatu behar izan genuen. “Zer egin dezakegu etxetik?”, “zein konponbide aurkitu dezakegu?”. Bideoa nahitanahiez egin behar genuen, baina ezin genuen musikariek ezin egin eta egoera



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carnicería  
autorizada

**Bidebarrieta, 20**  
Especialistak plater prestatu  
eta haragi bikainetan  
**ETXERA  
ERAMATEN DIZUGU**

943 20 16 69

 @Oberenaharategia



berriak hainbat muga ezarri zizkigun. Beraz, ideia orijinala sortzeko orduan egindako zirriborro batzuetatik abiatu ginen eta marrazki horiek animatzea pentsatu genuen. Zaldiak agertzen ziren, ekaitza... eta hari horri egin genion tira.

### **Bideokliparen grabaketa bertan behera lagatzeaz gain, alarma egoeran muga gehiago ezarri dira (konfinamendua eta abar). Nola egin ahal izan duzue lan bideoklipa sortzeko?**

Etxetik egin dugu lana tablet eta ordenagailu batekin. Arkatz digital batekin tabletean marrazkiak egin eta aplikazio batekin marrazkiak animatu ditugu fotogramaz fotograma. Hor egin ditugu gauza guztiak: euria, zaldiak, mugitzen dira gauzak... Gero, guzti hori ordenagailura eraman dugu eta konposizioak egin ditugu, planoz plano istorio bat sortuz.

### **Marka da baliabide horiekin horrelako bideoklip bat egitea!**

Gaur egun eskura ditugun gailuek ahalmen handia dute. Tablet eta ordenagailu txukunekin demaseko gauzak egin daitezke, oso erraminta onak dira. Ez dut



### **“Bideoa sortzeko ez dugu musikariekin ezer egiteko aukerarik eduki”**

esan nahi orain dena etxetik egin daitekeenik, baina luxua da pare bat gauzarekin horrelako lan bat egin ahal izatea.

### **Erlojuaren aurka egin behar izan duzue lan?**

### **“Niretzat dibertigarria da horrelako lanak egitea”**

Abestia martxoan estreinatu behar zuten, baina arazo guztien ondoren apirilerara atzeratu zen. Bederatzi egun behar izan genituen bideoklipa egiteko, beraz, korrika ibili behar izan gara.

### **Sortzaile moduan nola moldatau zara egoera horretan?**

Bitxia izan da. Berrogeialdia, berez, berezia da guztiontzat, baina lan honen inguruan gertatu dena gehituz gero, are bereziagoa izan da. Hala ere, niretzat dibertigarria da horrelako lanak egitea. Lan hauek egiteko zortea dut, ez da zigor bat. Beraz, presioa izan arren, aparta da.

### **Horrelako egoeretan sormenari zuku gehiago ateratzen zaio?**

Egunak eta egunak daude. Batzuetan gogoz ekiten diozu lanari, baina beste batzuetan zure burua behartu behar duzu lana egiteko.

### **Antzeko egoerarik bizi izan duzue beste proiekturen batekin?**

TAOMen lan ezberdinak egin ditugu eta, besteak beste, enpresen irudia lantzen dugu. Sasoi honetan hainbat azoka egin behar ziren eta guk enpresen standak diseinatzen ditugu, baina azokak bertan behera geratu dira edo atzeratu egin dituzte eta, ondorioz, baita gure lana ere. Dena dela, lan batzuk etxetik egiteko aukera dugu eta hori zoragarria da guretzat.



**Gerritek**  
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net  
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako  
ZERBITZU TEKNIKOA  
eta SALMENTA**



**Neurrira  
egindako  
software-aren  
garapena**



**FUNEUSKADI**  
Grupo Asitica

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeuskadi

**TANATORIO EIBAR**

**TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com**

<b>Eibar:</b> Otaola, 27	<b>Elgoibar:</b> Xizilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
<b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20	<b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16

**Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao**

## Hildakoak

- **Iñaxio Zubeldia Arrieta.** 92 urte. 2020-III-14.
- **Luis Gutierrez Pellon.** 88 urte. 2020-III-16.
- **Antonio Caballero Garcia.** 87 urte. 2020-III-17.
- **Gilbert Basurto Galparsoro.** 82 urte. 2020-III-18.
- **Jose Antonio Castro Egibar.** 69 urte. 2020-III-18.
- **Pedro Belaustegi Urionabarrenetxea.** 82 urte. 2020-III-19.
- **Angel Alzelai Oiarzun.** 81 urte. 2020-III-20.
- **Pedro Rodrigo Anton.** 94 urte. 2020-III-20.
- **Beatriz Varela Gonzalez.** 96 urte. 2020-III-21.
- **Gregorio Apaolaza Zaitegi.** 92 urte. 2020-III-22.
- **Koro Galarraga Alonso.** 69 urte. 2020-III-25.
- **Florencio Carmona Moreno.** 88 urte. 2020-III-26.
- **Marisol Zamakola Hernando.** 79 urte. 2020-III-26.
- **Luis Martin Bello.** 82 urte. 2020-III-27.
- **Jose Luis Cano Cano.** 89 urte. 2020-III-28.
- **Santiago Pascual Martinez.** 89 urte. 2020-III-28.
- **Tavita Ollero Gonzalez.** 87 urte. 2020-III-29.
- **Antonia Solozabal Urkidi.** 93 urte. 2020-III-29.
- **Iñaki Jaca Pujana.** 83 urte. 2020-III-29.
- **M<sup>a</sup> Isabel Albeniz Gaztelu.** 59 urte. 2020-III-29.
- **Eugenia Gorriti Aranberri.** 90 urte. 2020-III-30.
- **Kontxi Uriarte Salsamendi.** 94 urte. 2020-IV-1.
- **Teresa Alzola Aiestaran.** 93 urte. 2020-IV-2.
- **Jesusa Alonso Vime.** 87 urte. 2020-IV-2.
- **Laura San Miguel Padilla.** 83 urte. 2020-IV-3.
- **Maria Mandiola Maguregi.** 92 urte. 2020-IV-5.
- **Francisca Rodriguez Moreno.** 66 urte. 2020-IV-5.
- **Emilia Atxa Igartua.** 91 urte. 2020-IV-5.
- **Dora Barrenetxea Arrizabalaga.** 99 urte. 2020-IV-6.
- **Luis Gonzalez Fernandez.** 86 urte. 2020-IV-6.
- **Julian Perez Martinez.** 95 urte. 2020-IV-6.
- **Jose Ignacio Ortuoste Alberdi.** 79 urte. 2020-IV-7.
- **Josefa Guede Rodriguez.** 92 urte. 2020-IV-7.
- **Manuel Aranbarri Elorza.** 90 urte. 2020-IV-7.
- **M<sup>a</sup> Luisa Flores Mata.** 82 urte. 2020-IV-7.
- **Maria Zubia Bastida.** 90 urte. 2020-IV-8.
- **Fernando Valenciano Yebra.** 49 urte. 2020-IV-8.
- **Sara Rivas Fernandez.** 88 urte. 2020-IV-9.
- **Amparo Villahoz Ramos.** 85 urte. 2020-IV-10.
- **Jose Antonio Amuategi Casero.** 86 urte. 2020-IV-11.
- **Ana M<sup>a</sup> Arenas Gisasola.** 93 urte. 2020-IV-11.
- **M<sup>a</sup> Cristina Gorostiaga Diva.** 91 urte. 2020-IV-11.
- **Matilde Rodriguez Fernandez.** 90 urte. 2020-IV-12.
- **Florentina Unzetabarrenetxea Epelde.** 94 urte. 2020-IV-13.
- **Francisco Gallardo Rodriguez.** 94 urte. 2020-IV-14.
- **Ignacio Larrarte Arrizabalaga.** 82 urte. 2020-IV-14.
- **Juan Antxia Enparanza.** 89 urte. 2020-IV-14.
- **M<sup>a</sup> Angeles Adot Perea.** 91 urte. 2020-IV-14.
- **Nieves Azpiri Iriondo.** 80 urte. 2020-IV-15.
- **Olga Pildain Txurruka.** 85 urte. 2020-IV-15.
- **Fernando Lete Lizarralde.** 88 urte. 2020-IV-15.
- **Begoña Villagarcia Barrainkua.** 65 urte. 2020-IV-15.
- **Jesus Novillo Moya.** 90 urte. 2020-IV-17.
- **Lidia Villamor Vivanco.** 87 urte. 2020-IV-17.
- **Severiana Antolin Gomez.** 94 urte. 2020-IV-18.
- **Pablo Gonzalez Diez.** 66 urte. 2020-IV-18.
- **Natividad Campo Sanchez.** 96 urte. 2020-IV-19.
- **M<sup>a</sup> Luisa Lekunberri Arana.** 97 urte. 2020-IV-19.
- **Jose Alberto Anitua Atxa.** 77 urte. 2020-IV-20.
- **Manuel Rivero Martinez.** 85 urte. 2020-IV-21.





# K.A 1173

**Saskibaloiak erakutsi zигun galdutako partidak irabazitakoak adina ospatzen. Izatez, batek dena ematen duenean galtzen denean ere ez dela benetan galtzen. Partida hau goizegi bukatu da, baina saskibaloiak erakutsi zигun hau ere: nahiz eta jokatzeari utzi, bat ez da inoiz erretiratzen.**



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **LUCA**, martxuaren 22xan 4 urte egin zenduazena. Guztion partetik.



Zorionak, **MARCO**!!! 3 urte bete dozuz, txapeldun! Musu haundi bat aitta, ama eta etxeko guztien partez.



Zorionak, **AMETS**, martxuaren 24an 11 urte bete zenduazena. Patxo pilla bat famelixak eta, batez be, Hodei eta Bihotzek.



Zorionak **MARKEL** Lasuen eta **NAIA** Suarez, hillaren 21ian 8 urte bete zenduezen-eta. Patxo potolua aitatxo, amatxo eta, batez be, Anne eta Iratiren partez.

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Zorionak, **IRAIA**, martxuaren 17xan 8 urte bete zenduazena. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **INTZA**!!!! Hillaren 23an 6 urte bete zenduazena-eta, neska haundi!!!! Patxo haundi-haundi bat etxekuen partez!!!!



Zorionak, **IRAIA**, apirillaren 9xan 6 urte bete zenduazena-eta. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.

## Farmaziak

<b>ASTELEHENA 27</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)</b>
<b>MARTITZENA 28</b>
<b>EGUNEZ   Morgado (San Agustin, 3)</b>
<b>EGUAZTENA 29</b>
<b>EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)</b>
<b>EGUENA 30</b>
<b>EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)</b>
<b>BARIXAKUA 1</b>
<b>EGUNEZ   Barandela (Z. Agirre, 4)</b>
<b>GAUEZ BETI, 2020an,</b> <b>Barandela (Ziriako Agirre, 4)</b>

 **centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreak / 1. solairua  
⇒ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikokoak
- Barne Medikuntza
- Dermatologia
- Dietetika / Nutrizioa
- Erizaintza
- Familia medikua
- Fisioterapia
- Foto-depilazio Unitatea
- Kardiologia
- Kirurgia
- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Kirurgia baskularra
- Koloproktologia
- Neurofisiologia
- Ortodontzia
- Otorrinolaringologia
- Psikologia
- Radiologia
- Traumatologia
- Urologia

**IBARKURUTZE**



**BASERRIKO PRODUKTUAK**  
**IBARKURUTZE**  
frutadenda

WHATSAPP BIDEZ ESKAERAK  
680 38 20 91 / 664 71 86 99



## 81 egun eta gero, Zaldibar noiz argituko duten zain jarraitzen du herriak

**A**larma egoera ezarri aurretik eskatuta zeuden Zaldibar Argitu plataformaren banderak saltzeko modua aurkitu dute eta, horri esker, etxeko leiho edo balkoian ipintzeko bandera erosi nahi duenak hiru tokitan dauka erosteko aukera, 5 eurotan: Maria Ospitxalen (Calbeton kalean), Ibarkurutze fruterian (Ibarkurutzen) eta Merkatu Plazan (Bidebarrietan). Plataforma kideek eibartar guztiak banderak erosi eta ipintzera animatu nahi dituzte eta, horrekin batera, eskerrak eman nahi dizkiete banderak salgai ipini dituzten dendariei.

Otsailaren 6an amildu zen Verter Recycling enpresaren hondakindegia,

### Eitzagan lez, beharra heriotza denean

*1*  
Segurtasunaren aurrean dirua hobesten denean, olan, eraikuntzan, garraioan... beharginak arrisku bizian, XXI.mendearen gaurdaino kapitalista zekenen erruz, istripuak geurean barra-barra ondorio latz eta goibelekin. Enpresarioak ohoratuta, sindikatuak, berriz, gaitzetsita, gobernuen jarrera etsigarriaz auzoetan nahitaez atsekabea, beharginak biluzik laga ordez lan baldintza eskasekin, osasuna berma diezaietela lanaren emaitza onura izan dadin.

*2*  
Eitzagako hondakindegian kolapsoa iragarrita zegoen, bi behargin eta autopista luperiak zaborpetu zituen, kudeaketa maltzurki burututa Verter Recycling iruzurgile, ikuskapenak nahita txarto eginda Eusko Jaurlaritza erantzule. Amiantoak erakutsi du berekoiek egindako malezia, ke pozoitsuak salatuta gaizkia Eibar, Ermua, Zaldibar... haserre, Alberto eta Joaquin zuen patu gaitza bihozgabean bidegabekeria, zuentzat maitez ihintzaren diridira Ama-Lurraren laztan eternala.



Ibon Muñoa Arizmendiarieta  
Kordobako espetxean

Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileak desagerrarazita eta, erreskate eta bilaketa lanak egunean bertan hasi zituzten arren, gaur arte ez dute gorpurik aurkitu.

Martxoaren 14an, alarma egoera ezartzearekin batera, bilaketa lanen erritmoa moteldu egin zen, hilaren 30ean Espainiako Gobernuak bilaketa lanekin segitzeari baiezkota eman arte. Bi hilabeteak betetzeko ordu batzuren faltan itxaropen izpi txiki bat piztu zen, Zaldibarko zabortegian bilaketa lanak egiten ari den taldeak Alberto Sololuzeren ibilgailua aurkitu zuela jakinarazi zutenean, baina automobilaren aztarnak, besterik ez ziren agertu. ■

## FERNANDO VALENCIANO



*"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"*  
EZ ZAITUGU AHAZTUKO

"Eibar tiene un once"-ko zure lagunak



# helmet house

CONCEPT STORE

1. Ekintzailea bazara,  
hemen duzu  
zure espazioa.

2. Zure osasuna zaindu  
nahi baduzu, lagun gutxiko  
klase pertsonalatuak.

3. Ekitaldiak egiteko,  
zure etxera ere  
joan gaitzke.

moments  
with  
a story  
behind

## Zure OASIA Errebalgo obretan

hello@helmethouse.es

943 84 93 10

📍 Blas Etxebarría 1 (Coliseo ondoan)

📷 @helmethousestore



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA 5 COOP



2020-2021

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 30 (Larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh  
onarpena.lhm@mondragon.edu  
664 298 704 • 664 298 683

ms  
Mondragon  
Unibertsitatea



LABORAL

HETEL

Fp  
Mondragon



bista eder

clinica dental - hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko  
dugu irribarrea.



bista eder

clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)



bistaeder\_clinicadental

